



Jon Arretxe · Idazlea

«Istanbulek badu xarma berezi bat, hilketak bertan girotzeko»

“Morto vivace” eta “Fatum” eleberrietan egin bezala, Jon Arretxe idazleak bidaia eta literatura beltza uztartu ditu iragan abenduan argitaratutako “Xahmaran” liburuan. Misterioak, exotismoak eta heriotzak bat egiten dute eleberri beltz gordin honetan.

“Xahmaran”-ek zure aurreko bi liburuen ildo jarraitzen du: misterioa, urruneko parajeak...

Bai, azkeneko hiru eleberriak nobela beltzaren generoan koka ditzakegu, baina bidaia-literaturaren kutsua ere badute, batez ere azken honek. Oraingoan urrunago joan naiz: Istanbulera, Kurdistanera eta Munichera, hain zuzen. Horregatik, bidaia-literaturara gehiago hurbiltzen da aurrekoak baino.

Eta zergatik hautatu zenituen toki horiek misteriozko eleberri bat girotzeko?

Aurretik ezagutzen nituelako. Bidaia kutsuko nobela beltzak idazten hasi nintzenean, lehenengo [“Morto vivace”, 2007] Parisen kokatu nuen eta bigarrena [“Fatum”, 2008], Lisboan, baina hasieratik bertatik argi neukan Istanbulen kokatutako istorioaren bat idatziko nuela egunen batean. Seguru nengoan. Istanbul aspalditik ezagutzen nuen, eta askotan izana naiz bertan. Kontraste handiko hiria da, oso berezia, eta kokagune ezin egokiagoa iruditu zitzaidan nobela beltz bat bertan girotzeko.

Xarma berezi bat du, beraz...

Hori da. Hilketak bat, Iruñeko Taconera parkean edo kale estu batean gertatzen bada, tira, ongi dago, baina hammam [bainu turkiar] batean, Meskitetako gaueko otoitzaldietan edo Bosforo itsasadarrean... hori beste zerbaite da. Misterio handiko zonaldea da, zalantzarik

gabe. Bestalde, lehendik ere Kurdistan apur bat ezagutzen nuen, eta eleberriko hiltzailea zein bere familia bertokoak izatea otu zitzaidan, nobela gehiagorik aberasteko.

Nahiz eta herri horiek aurretik ezagutu, dokumentazio lan itzela egin beharko zenuen...

Bai, bai, oso lan handia. Adibidez, hiltzailea kurdua zenez, hitz batzuk kurdueraz esan arazi nahi nizkion. Xehetasun horiek guztiak azaltzen zizkidaten kontaktuak egin nituen Istanbulen, Kurdistanen eta Munichen.

Nolakoa da zure idazketa prozesua? Hasieratik bertatik argi duzu zer kontatu nahi duzun, ala inprobisaziorako tartea uzten duzu?

Liburu bakoitza ezberdina da. Batzuetan, hasiera-hasieratik garbi ikusten dut zein izanen den lehen orrialdea eta zein azkena.

"Xahmaran"-en kasuan, adibidez, oso argi nuen amaiera nolakoa izanen zen. Oso amaiera markatua du eleberriak. Hala ere, tartean gertatzen diren hainbat gauza idazten joan ahala bururatu zitzaizkidan. Nobela Istanbultik Munichera eramatea, adibidez, prozesuan bururatutako zerbaite izan zen. Hasiera batean ez nuen halakorik pentsatu, baina gero ikusi nuen errekurso bikaina zela, eta aukera mordo zabalitzen zidala aurrera egiteko. Protagonistak kurduak dira eta Alemanian kurdu mordo bizi da, beraz, oso egokia zen hiltzailearen arreba Alemanian bizitzea, modu horretan giro ezberdinak tartekatzen ahal nituelako, flashbackak sartu... "Morto Vivace" idatzi nuenean, hasiera garbi neukan, baina gainontzekoa idatzi ahala bururatu zitzaidan, jakin gabe hiltzailea nor izango zen. Kasu bakoitza desberdina da.

Idazteko orduan ba al duzu mania edo apetarik?

Bai [irribarrez]. Askok.

Eta hemen aitortu dezakezun baten bat?

Nobela kokatzen den lekuan idaztea gustuko dut. Ez dakit hori mania ala ohitura den. Adibidez, azken eleberri hau idazten ari nintzela, hiru alditan joan nintzen Istanbulera. Batzuk esaten dute sekulako azal gogorra dudala, eta idaztearena bidaia egiteko

aitzakia hutsa baino ez dela. Agian arrazoi dute. Dena den, nik askoz errazago idazten dut bertan izanda. Kaletik pasiatzen nabilela xehetasun eta bitxikeria asko ikus ditzaket, eta horrek asko aberasten du liburua. Oinarria sendoagoa da eta, ondorioz, azken emaitza, sinesgarriagoa. Irakurleak hori guztia igartzen du.

Zure eleberri guztiek duten ezaugarri bat irudiarekiko lotura da. Oso grafikoak dira denak, irakurlea film bat ikusten ariko balitz bezala...

Hori askotan gertatzen zait, bai. Liburu bat idazten hasten naizenean, nire burua kamara baten bestaldean irudikatzen dut. Nire liburua ia-ia pelikula gisa imajinatzen ditut, zinemarako gidioak balira bezala. Nire teknika nahiko zinematografikoa dela esan genezake. "Pelikuleroa", agian.

Irakurleengan pentsatzen al duzu, zure eleberriak idaztean?

Ez. Egia esan, idazten hasten naizenean, ez dut liburua kanpoko faktoreetan gehiegi pentsatzen. Eleberri beltz bat idazteko gogoa baldin badut, idatziko dut; beldurrezko istorio bat egin nahi badut, idatziko dut; baldarkeria bat idazteko gogoa baldin badut, hori ere idatziko dut... Horrela egin ohi dut lan. Azkenaldian bidaietan oinarritutako liburua idazteko grina piztu zait, eta ho-

rretan nabil, irakurleak ustez nahi duenari erreparatu gabe. Hala-kotan pentsatzen hasiko banintz, ez nuke ezertxo ere idatziko.

Literaturaren munduan, eta konkretuki Euskal Herrian, autore-eleberri jasoaren eta genero-nobelaren artean muga bat dagoela dirudi. Genero zehatz batean idatzitako eleberriak gutxiak daudela uste duzu?

Bai, hori egia da. Divo-izaera gehiegi dago literaturan. Horrenbeste maila, horrenbeste sailkapen... «Hau literatura ona da; hori, tartekoa; eta beste hura, txarra». Kanona zer den eta zer ez den eztabaidatzeari oso gauza antzua deritzot. Nobela beltzak beste eleberri batzuek baino maila eskasagoa dauka? Zergatik? Horiek guztiak topikoak besterik ez dira. Eleberri bat ona edo txarra izan daiteke, eta generoak ez du horrekin zerikusirik.

Ba al dago bereziki miresten duzun autorerik?

Autorerik ez. Eleberriak bai, ordea. Dashiell Hammett-en "Uzta gorria" liburua, adibidez, izugarri gustatu zitzaidan, baina beste batzuek hotz utzi ninduten. Beste egile askorekin ere halaxe gertatu zait. Nobela-zalea naiz, egile-zalea baino. Eta filmekin ere, antzeko zerbaite: badira gustuko ditudan lanak, baina ez naiz egile jakin baten jarraitzaile sutua.